

Erref. kodea: LAF-220-192 [78]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Tauer, Norbert: *Gora euskeraren
eguna!!*

*non le
herria
ni emulter ai
M. l'abbie Lafitte*

GORA EUSKERAREN EGUNA !

Ezin da ukatzeko izkuntza dela abenderri bakoitzaren onarria eta beste abenderri guztietatik bereiz-egiten duen zeingirik agiriena. Euskotarren izkuntza bakarra euskera da, Europa ko izkuntzetatik den zarrena ta ederrena, Antzinako euskaldunak Aitor engandik artu zuten eta beti ezpanetan zeramaten, euskaldun abizenetatik baita ere Euzkadi ko erri, menñi ta ibaien izenetatik agiri dagonez.

Euskeraren goresetan jai berezi bat, EUSKERAREN EGUNA deitua, urteoro Xabier tar Pantzeska sainduaren jaiegunari darraikon igandean, aurten Lotazillaren 9 ean, ospatzen da. Ez da arritzeko euskaldun saindu au euskaltzaleak euskerarengana nako maitetasunean eredutzat artu eta aren jaiak Euskeraren Eguna ospatzeko autatu zuten. Guziok dakigu Xabier tar Pantzeska sainduak txikitari amaren magalean ikasitako euskera biotz-biotzetik maite izan, beti euskeraz itzegin eta euskerazko otoitzearekin ezpanetan bere gogo garbia Jaungoikoari biurtu zion.

Igaro urteetan bezela aurten ere Euzkadi n ez ezik, baita ere atzerrietan bizi diren euskotarren artean Euskeraren Eguna jaituko da.

Benetan bear-bearrezkoa da euskotarren biotzetan euskerarengana ko garra piztea, batez ere oraingo egunetan, Aunamendi ko bi aldeetatik euskerari buruzko berri illun-illunak datozki-gutenetan. Berri oyen arabera orain-arte euskeraz bakarrik itzegiten duten erri ugariez erdera

nausitzen ari da eta onela euskerak egunetik egunera lurra galtzen du.

Euskotarrak gogoratu bear dute euskeraren galtzea Euskalerrriaren ondamendia izango dela. Euskera iges ezkeru, joango dira betiko Euskalerrriaren oitura garbi ta jatorrak, kanta zora - garriak eta asaben sinismen bizia. Itz batean esateko : euskera ilke bada, ilke da Euskalerrria ere, euskera galduko bada, guzia galdua dago. Orregatik euskotarrak beren elea begi-niniak bano obeki gorde bear dute beren semeei joritasun osoan uzteko.

Euskera gaizkatzea euskotarren gain dago, bana lan au ekiteko abertzale zintzo guzien laguntza noraezekoa da. Elburu au ardiesteko euskera maite degun guziok alkartu ta euskalzaleen bazkun aundi bat antolatu bear degu. Gude-aurrean Naparroa n izan zan Euskeraren Adiskideak izeneko alkartasuna eredutzat artu dezakegu. Alkartasun onek Naparroa ko erri ugarietan , an galtzorian dagoen euskeraren onean lan txit merezigarria egin zuen.

Euskera bizkortzeko asmoan bazkun berri oni lagundu bearke diote euskotar zintzo guziak bai gogozko lanarekin bai dirurekin. Aren xede nagusia izango da euskotarren artean euskerarenganako maitetasuna piztu eta beren izkuntza ez dakitenak euskera ikasteke eragitea, euskerazko idaztiak argitaratuaz eta euskal ikasteak eratuaz. Aurrei euskera irakasteke arreta berezia zuzendu bearke da, ayengan eusko-abendaren bizia dagolako.

Euskotarrak eusko-jakintza bat eratu nai badute, euskeraren bidez bakarrik egin dezakete. Beste izkuntza baten bitartez au ez da alekoa, erdera azalean gelditzen delakotz, ez diteke euskaldunen gogoaren mamirano eldu. Jakintza euskeraz lantzeko jakintsu ta olerkari argia den Zaitegi ta Plazaola tar jaunak Guatemala n argi-

taratutako EUZKO GOGOIA izeneko aldizkaria garrantzi aundikoa da. Orregatik euskotar guzien eginbearra da aldizkari oni eusteko.

Nere lerro oyek amaitzeko Zerbitzari ospetsuaren "BIZI DADIN ESKUARA" izeneko olerkiaren bersto ederrak aipatzen dizkizuet:

Mintzairetan Eskuara emen da lehena,
Dena den, Eskuara da segur ederrena,
Othoi atxik dezagun eder bezen garbi,
Eskuaraz mintzatuz noiz bai eta non-nahi!

Eskuara hain da eder, hain da maitagarri,
Non behar baitiegu laguntza ekharri,
Bizi dadin maitea orai eta gero,
Berma gaiten hortarat Eskualdunak oro!

Gora Euzkadi ta Euskera, euskaldunen izkuntza bakarra, gora.

Praga tik 1951 gko Azillaren 12'ean.

Praga ko euskaltzale batek
egina.

Faint, illegible text at the top of the page, possibly a header or title.

Second block of faint, illegible text.

Third block of faint, illegible text.

Fourth block of faint, illegible text.

Fifth block of faint, illegible text.

Sixth block of faint, illegible text.

Seventh block of faint, illegible text.

